

Hezkuntza Mugimendu Alternatiboa Euskal Autonomia Erkidegoan

Aitor Garagarza, Israel Alonso, Miren Aguirregoitia eta Josebe Alonso
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Gaur egun, hainbat korrante ari dira hezkuntza alternatiboarekin lotutako hainbat proiektu garatzen, bereziki, Europan eta Latinoamerikan. Euskal Herria ez da salbuespena proiektu horien hazkundeari dagokionez. Artikulu honen helburua da abian diren askotariko proiektuak deskribatu eta haien ezaugarriak ezagutzea, errealitate hori ulertze eta aztertze aldera, etorkizunean ohiko hezkuntza-sistemaren alternatiba izan dadin. Horretarako, hezkuntza alternatiboa kontzeptuaren berrazterketa teorikoa egin dugu ondorioztatuz, elementu komunak dituztela, hala nola askatasuna, autonomia eta partaidetza. Horrez gain, elkarrizketa sakonak egin dira, eta EAEko hezkuntza alternatiboari buruzko hainbat iturri dokumental eta komunikabideen hemerrotekak aztertu dira. Egiatzatu ahal izan dugu esponentzialki hazi direla bai hezkuntza-proposamen berrien irekiera, bai gune horiek sustatzeko moduen askotarikotasuna. Garrantzitsua da mugimendu horren ibilbideari hurbiletik jarraitzea; izan ere, ikerketa honen emaitzetako batzuen argitan, esan daiteke hezkuntza-eragile bat jaiotzen ari dela, zeregin garrantzitsua izan dezakeena etorkizuneko hezkuntza-erronkei aurre egiteko.

GAKO-HITZAK: Hezkuntza alternatiboa · Aldaketa pedagogikoa · Hezkuntza-berrikuntza.

Alternative Education Movement in the Basque Autonomous Community

Today, many alternative education projects are being developed, especially in Europe and Latin America. The Basque Country is no exception in the growth of these projects. The objective of this article is to describe the projects in progress and to know their characteristics, so that we can understand this reality as a future educational alternative to the conventional system. To this end, a documentary review has been carried out on the concept of alternative education, concluding that there are common elements such as freedom, autonomy, and participation. In addition, in-depth interviews were conducted and different publications and the newspaper library were searched. The exponential increase in the opening of new educational proposals and the diversity in the way of promoting these spaces has been confirmed. Following the path of this movement closely shows the birth of a new agent capable of facing the educational challenges of the future.

KEY WORDS: Alternative education · Educational Change · Educational innovation.
<https://doi.org/10.26876/uztaro.115.2020.4> **Jasotze data:** 2019-12-22 **Onartze data:** 2020-02-23

1. Sarrera

Lan honetan aurkeztuko dugu gaur egun Hezkuntza Mugimendu Alternatiboak zer-nolako egoera duen, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan zer ezarpen duen sakon aztertuko dugu. Sortu diren askotariko hezkuntza-espazioak eta haien ezaugarriak deskribatuko eta aztertuko ditugu. Ikusiko dugu EAE ez dela salbuespen bat hezkuntza alternatiboak maila globalean izandako hazkundean, batez ere Hego Amerikan zein Espainiako Estatuan; izan ere, azken bi hamarkadetan, familia askok aukeratu dituzte mota horretako proiektuak. Eta beste urrats bat ere eman dute, elkarri laguntzeko sare bat eratuta. Sare hori, besteak beste, hezkuntza-eredu horiek aukeratzeko dituzten familiei oztopo egiten dien lege-egoera aldatzen ahalegintzen da. Lege-egoera horri ere helduko zaio lan honetan.

2. Hezkuntza alternatiboa: kontzeptua eta ezaugarriak

Hezkuntza alternatiboaren esparruan barneratzeak honako hauetara hurbilarazten gaitu: horrelako praktikak kokatzeko darabiltzagun ñabarduretara, mundu-ikuskeretara, errealtateetara eta askotariko testuinguruetara. Lan zaila da hezkuntza alternatibotzat zer jotzen dugun kontzeptualizatzen ahalegintzea, kontzeptu oso zabala baita, eta hainbat esanahitara eraman gaitzake pertsonen subjektibotasunaren eta askotariko hezkuntza-paradigmen arabera. Hainbat egile ahalegindu dira (Contreras 2004, 2010; García, 2005; Feito, 2006; Domènech, 2009; Mateu, 2011; Pericacho, 2014; Carbonell, 2015; García, 2017; Carneros, 2018) Hezkuntza Mugimendu Alternatiboaren ezaugarriak sailkatzen eta definitzen. Denek bat egiten dute esatean mugimendu heterogeneoa dela eta mugimendu hori katalogatze hutsa korapilatsua dela: eskola askeak, hezkuntza askea, hezkuntza aktiboa, pedagogia biziak, eskola ez-konbentzionalak, hezkuntza-berrikuntza...

Hala, zaila da modu horretan adjektiba daitezkeen joera guztiak bateratuko lituzkeen definizio zehatza eta doia aurkitzea; izan ere, «eskola alternatibo» izenpean eskola tradizionaletik desberdinak diren aukerak eskaintzen dituzten eskola asko dago, kontzeptzio eta kezka pedagogiko desberdinen arabera aritzen direnak (Carneros, 2018). Ramos eta Pericachok (2013) eta Raywid-ek (1994) bat egiten dute ideia honetan: hezkuntza alternatiboaren arloko askotarikotasuna ez datza soilik darabilgun terminologian; izan ere, ikuspegi askotarikotasun handian, aukera filosofiko eta politikoetan (CEDEFOP, 2002), eta metodoetan ere badatza. Ondorioz, horien guztien jardunek emaitza oso heterogeneoak dituzte.

Carbonell-ek (2015) hezkuntza-berrikuntzak abian jarri dituzten pedagogia alternatiboak aurkeztu ditu. Askotariko proposamen pedagogiko horiek, kasu askotan, bat egiten dute metodologietan eta testuinguruaren analisisan, partzialki bada ere; baina, zenbaitetan, desberdintasunak dituzte hezkuntza eraldatzeko praxietan eta jardute-esparruetan. Zehazki, 8 proposamen pedagogiko desberdin aurkeztu ditu:

- Pedagogia ez-instituzionalak. Eskolaz kanpoko ikaskuntza eta hezkuntza.
- Pedagogia kritikoak.

- Pedagogia ez-zuzentzaileak. Ohiko eskolatzearekiko alternatibak.
- Inklusio- eta lankidetzeta-pedagogiak.
- Pedagogia geldoa, lasaia eta iraunkorra.
- Pedagogia sistemikoa.
- Ezagutza integratuaren pedagogiak. Lan-proiektuak.
- Askotariko adimenen pedagogiak.

Egile hori (2015) XXI. mendeko pedagogiei buruz ari baldin bada ere, aurkeztutako hezkuntza-proposamen gehienak XX. mendean teorizatu eta inplementatu ziren. Beraz, baliabide teoriko aberatsak dituzte, baina, orain arte, inplementazio txikia izan dute kuantitatiboki. Proposamen horietako batzuk gora egiten ari dira edo egungo hezkuntza-erronkei aurre egiteko aukera alternatiboak eta berritzaileak lortu dituzte (Larrañeta, 2015).

Carnerosek dioen eran (2018), garrantzitsua da hezkuntza alternatiboaren baitan hauek bereiztea: hezkuntza-proiektu alternatiboak eta pedagogia alternatiboaren kontzeptua. Egile horren arabera, pedagogia alternatiboak bi-bietan gara daitezke, ohiko hezkuntzaren baitan nahiz joera alternatiboko proiektuetan. Metodologia bati buruz ari gara, ez erakunde bati buruz. Mota horretakoak dira gure inguruko esperientzia hauek: Amara Berri (Guerrero, 2013) eta Ikaskuntza Komunitateak (Cadena-Chala eta Orcasitas-García, 2016).

Hezkuntza alternatiboa diogunean, Carbonellen (2015) iritziz, pedagogia aske ez-zuzentzaileei eta ohikoarekiko alternatiboari buruz ari gara. Hala ere, azpimarratzekoa da beste proposamen pedagogiko batzuen eragina ere. Adibidez, pedagogia kritikoaren korrontea zeregin handia izaten ari da egungo hezkuntzaren egoerari buruzko analisietan, eta garrantzitsua da botere faktikoak birsortzen dituen eta, halaber, eraldaketa-eragilea den erakunde gisa eskolak duen zereginari egiten dion kritika. Bestalde, kontuan hartzen ditugu «pedagogia ez-instituzional» deritzenetako esperientziak ere, hala nola Francesco Tonucci (1996, 2014) buru zuten «hiri hezitzailea» eta «haurren hiria» eta pedagogia geldoak. Carbonellek (2015) pedagogia askeetatik bereizten baditu ere, sinergia argiak dituzte lan honetan aztertuko ditugun hezkuntza-proiektuekin.

Lehen ere esan dugu garatzen ari diren jardunbideetako askok ez dutela metodologia bera erabiltzen. Are gehiago, hezkuntza alternatiboan, hainbat hezkuntza-joera eta metodologia daude, oinarrian askotariko kezka eta kontzepzio pedagogikoak dituztenak. Proiektu mota horrek garatzen duen hezkuntza-jardunbidea oso heterogeneoa da. Hezkuntza alternatibo zeri esaten zaion laburbiltzeko, Contreras-ek (2004, 2010) eskola-eredu konbentzionalaren zer alderdi irauli nahi dituen hartzen du oinarri. Hauek dira alderdi horiek: ezarritako curriculum, ebaluazio- eta kalifikazio-prozesuak, irakaskuntza ikasteko bide bakartzat hartzea, adinkako taldekatzea, irakaskuntza-prozesuen kudeaketa zein erabakiak pertsona helduen kontrolpean egotea, eremuen mugaketa eta denboren kontrola.

Carnerosen hitzetan (2018: 20), hezkuntza-proiektu alternatiboak gizarte-eta ingurumen-justizia bilatzen du, eta, hala, aldaketaren eragile bilakatzen dira, «ingurumen-hezkuntza, hezkuntza kritikoa, demokratikoa eta bidezko baten bidez. Hari esker, sistemako bidegabekeriez jabe daiteke, eta horiei aurre egin (indarkeria, bazterketa, botere-gabezia, esplotazioa, kultura-inperialismoa eta jasangarritasun-eza, besteak beste)». Esandakoaz gain, hezkuntza alternatiboko proiektuen definizio zabala ematen du. Hauek hartzen ditu Carnerosek (2018) hezkuntza alternatiboko proiektutzat: antolaketa-egitura batean (kuotak, ordutegiak, arduradunak, eremu jakin bat...) familia desberdinetako haurrak hartzen dituzten proiektuak, baldin eta beren irizpidearen eta borondatearen arabera antolatzen badira, tradizioan oinarritu gabe; beraz, originalak, berritzaileak eta inkonformistak badira beren alderdi guztietan eta, ondorioz, ez badira oinarritzen gehiengoaren ohitura eta moldeetan.

Hainbat egilek (Contreras 2004, 2010; Greenberg, 2003; García, 2005; Salmerón, 2010; Carbonell, 2015; García, 2017; Carneros, 2018) elementu komun gisa aipatzen dituzte partaidetza nagusi izatea, askatasuna, errespetua, autonomia, ahalduntzea eta sormena. Elementu horiek modu desberdinetan errepikatzen dira, baina, hezkuntza alternatiboaren definizio hermetikoa eta dogmatikoa bat mugatzeaz harago, Hezkuntza Mugimendu Alternatiboko joerak biltzeko gai den interpretazio-alor zabala eta askotarikoa proposatzen dute egileek. Horrez gain, aipatu nahi dugun ñabardura bat egiten du Carnerosek (2018) eredu itxiko eskola alternatiboek eta eredu irekiko eskola alternatiboek buruz. Lan honetan, bigarren multzo horietakoei buruz arituko gara.

Eskola alternatiboak	Haur-eskola alternatiboak	Baso-eskolak Reggio Emilia eskolak Beste batzuk (Montessori, Waldorf, Askeak Pikler...)	
	Eskola alternatiboa (eskolatze-etapa)	Eredu itxiko eskola alternatiboa	Montessori eskolak Waldorf edo Steiner eskolak Eskola logosofikoak Dalton eskolak Jenaplan eskolak Freinet Eskolak
		Eredu irekiko eskola alternatiboa	Eskola askeak Eskola demokratikoak Eskola libertarioak Eskola aktiboak Errespetuzko eskolak

1. irudia. Eskola alternatiboak. Iturria: Carneros eta Murillo (2017: 133).

Garagarzak, Alonsok eta Aguirregoitiak (2020), bestetik, hezkuntza-mugimendu honen ezaugarri orokor hauek aipatzen dituzte: (a) eraldaketaren alde esku hartzeko modu berriak, (b) askatasunean hezteka eta aukera-askatasuna, (c) hezkuntza holistikoa, (d) leku-aniztasuna, (e) langile profesionalak laguntzaitzat jardutea, (f) talde heterogeneoak, (g) ikaskuntza-gune ez-masifikatuak, (h) ezegonkortasun legala eta ekonomikoa eta (i) autogestioa eta partaidetza.

Azkenik, beharrezkoa iruditzen zaigu argitzea hezkuntza alternatiboaz ari garela eta ez eskola alternatiboei buruz; izan ere, uste dugu proiektu mota horrek eskolaren espazio-markoa gainditzeko duela askotan. Hala, egokiagoa iruditzen zaigu hezkuntza alternatiboko proiektuez aritzea eta ez eskola alternatiboez.

3. Aurrekariak eta egungo egoera

Hezkuntza-proposamen mota horrek XXI. mendean indarra hartu eta gora egin duen arren (Carbonell, 2015; Larrañeta, 2015; Carneros 2018), egia da, lehen esan dugun eran, proposamen mota horiek XX. mendearen hasieraz geroztik garatzen ari direla.

Bi proiektu izan dira mundu mailan, mugimenduaren eragin handiko aitzindari: XX. mendearen hasieran Erresuma Batuan Alexander Sutherland Neill-ek abiatutako *Summerhill* (Neill eta Torner, 1968; Neill, 2009), eta XX. mendearen amaieran Ekuadorren Rebeca eta Mauricio Wild-ek abiatutakoa. Azken kasu hori *El Pesta* izan zen hasieran, eta *El León Dormido*, gero (Wild, 2013). Erreferentziazko beste kasu bat, aitzindaria Espainiako Estatuan, Paideia Eskola Askea da. 1978an sortutako ibilbide luzeko esperientzia hori Extremaduran gauzatu da, eta, garbiki, ideologia libertariokotzat definitzen dute beren burua (Martín, 2004, 2006; Carneros, 2018). Badira ibilbide laburragoko beste proiektu mota batzuk, hala nola Kataluniako *La Caseta* eta *El Roure*. Azken bi esperientzia horiek 2000. urtean sortu ziren, eta biak dira Xarxa d'Educació Lliure sareko partaideak. Sare horrek «hezkuntza askeko proiektuei laguntzea (ikaskuntza-eremuak) —sortzen eta hazten— eta haien arteko trukea sustatzea» ditu helburu, besteak beste (Xarxa d'Educació Lliure, 2018).

Azken urteetan, hezkuntza alternatiboko proiektu ugari garatzen ari dira planetako hainbat lekutan, munduko sistemak eragiten duen ziurgabetasunak eta eskola konbentzionalaren eginkizuna ezbaian jartzen duten ahots kritikoei akuilatuta (García, 2017; Carneros, 2018). Kuantitatiboki, proiektu gutxi dira berez, eskolaren ezarpen orokorraren aldean, baina gero eta maizago ageri dira komunikabideen, hezkuntzaren eta akademiaren alorreko agendan.

Askotariko korrante pedagogikoak makina bat proiektu garatzen ari dira, bereziki, Europan eta Latinoamerikan. Esperientzia horiek egoera desberdinean daude, estatu bakoitzeko lege-berezitasunak zein diren. Kasu askotan, proiektuek ez dute lege-onarpenik eta legez kanpo daude (Carbonell, 2015).

Hezkuntza alternatiboaren mugimendu heterogeneoak badu beste bereizgarri bat, sarean lan egiten hasi izana, hain zuzen: eztabaida- eta truke-foroak eratu dira, telekomunikazioetan gertatu diren aldaketak eta aro digitalak eskaintzen dituen aukerak baliatuta. Horren adibide da REEVO sarearen (hezkuntza alternatiboaren sarea) *La educación prohibida* film-dokumentala. Filma kolektiboki finantzatu da, banaketa askekoa da eta, ohiko metodoez harago, Software Libreak ematen dituen tresnak erabilia ekoizti da. Internet bidez 704 ekoizlek batera egindako ekarpenarekin lortu zuten ekoizpen osoko gastuak ordaintzea. Eskola-ereduari buruzko gogoeta kritikoa eragiten ahalegindu dira, bai eta beste hezkuntza-proposamen batzuk

ezagutarazten ere. 15.000.000 erreprodukzioetik gora ditu¹ sarean² (*La educación prohibida*, 2009-2012).

Latinoamerikan soilik aritzen den REEVO sareak, aipatutako film-dokumentala ekoizteaz gain, direktorio bat ere sortu du: han, partaidetzan, planeta osoan garatzen ari diren askotariko esperientzien mapa bat eratuz doaz. 2019ko irailaren 19ra arte, 1.646 esperientzia bildu ditu direktorio horrek: esperientzia horien gehiengoa Latinoamerikan eta Espainiako Estatuan garatzen ari da. Munduko beste leku batzuetako proiektuak ere biltzen dituzte, baina, hizkuntza-arazoak direla-eta, zailagoa da munduko beste herri batzuetako proiektuak helaraztea (REEVO – Hezkuntza Alternatiboaren Mapaketa Kolektiboa, 2019). Makina bat alternatiba aurki daitezke, heterogeneoak izanik, askotan metodologia bera dutenak. Direktorioko hezkuntza-proposamen gehienek aurreko atalean aipatutako ezaugarriak dauzkate. Proiektu horietan, hezkuntza holistikoa, aktiboa, askea, partaidetzazkoa eta demokratikoa sustatzen da (Wernicke, 1994; Carbonell, 2015; García, 2017).

Espainiako Estatuan, Pedagogia Alternatiboen Ludus Direktorioa garatzen hasi zen Almudena García 2013an, eta, guztira, 30 proiektu zenbatu zituen. 2016rako, pedagogia alternatiboko 800 proiektu zenbatu zituen guztira (García, 2017). Horrek adierazten du beste hezkuntza-eredu batzuk azkar hedatzen ari direla eta haiekiko interesa haziz doala.

Direktorio horrek (*Ludus: Otra educación ya es posible*, 2018) askotariko hezkuntza-etapak biltzen ditu: institutuak, eskolak, bai eta hazkuntza-taldeak ere. Darabilten eredu pedagogikoaren arabera bereizketa ere egiten du: eskola askeak, Montessori, Waldorf, Reggio-Emilia ikuspegikoak, hezkuntza demokratikoa, baso-eskola, hazkuntza-taldeak, ikaskuntza-komunitateak eta sailkatzeko zailak diren beste mota bateko proiektu heterogeneoak.

Ludus direktorioan (2018) bildutako proiektu guztiak ez dira lehenago Hezkuntza Mugimendu Alternatiboa esan diogun horretan kokatzen; ildo horretakoak dira, ordea, biltzen dituen proiektuen bi heren baino gehiago. 2018ko maiatzaren 17ra arte, Ludus direktorioak egiten duen sailkapenaren arabera, 823 proiektu zituen jasota: 294k eskola libre edo aktibo izena hartzen zuten; 101ek Montessori ereduarekin zuten zerikusia; 16 baso-eskolak ziren, eta 229k beste mota bateko pedagogiak zituzten oinarri. Azpimarratzekoa da azken multzo horretako proposamen batzuk ez direla korrante pedagogiko zehatz batean kokatzen; aitzitik, hainbat joera biltzen dituzte.

1. 2019ko irailaren 19ra arte.

2. Gogoeta kritiko horiek oinarri hartuta, urteetan zehar, hezkuntzaren ikuspegi desberdina zuten eta duten proposamen eta praktikak sortu dira. *La educación prohibida* film-dokumentalak horietako asko berreskuratzea proposatzen du, haien ideiak aztertzeko eta eskola tradizionalaren hezkuntza-ereduaren egiturak aldatzera ausartu diren esperientziak ikusgai egiteko.

La educación prohibida fenomeno paregabe bilakatu zuten hauek guztiak: hezitzaileei, akademikoei, profesionalei, egileei eta gurasoei egindako 90 elkarrizketa baino gehiago; Iberoamerikako 8 herrialderen barna egindako ibilbidea, 45 ezohiko hezkuntza-esperientzian zehar; 25.000 jarraitzaile baino gehiago sare sozialetan estreinatu baino lehen, eta 704 ekoizleren parte-hartzea haren finantzazio kolektiboan. Hezkuntza-modu berriak hazi eta sor daitezzen zer behar latente dagoen azalerraten du garrantzi handiko proiektu guztiz independente horrek.

Ikastetxe sortu berri horien gehiengoa Haur Hezkuntzakoa da. Zergatik hori? Espainiako Estatuan, 2 urtetik 6 urtera doan etapa horretan eskolatzea ez delako derrigorrezkoa. Haurren tutore legalek erabakitzen dute eskolatu nahi dituzten edo ez. Pertsona askok erabakitzen dute haurrak legearen arabera ez eskolatzea, baina homologatuak ez diren egitasmoetan. Etapa horretan, familiek eta sortzen ari diren zentroek administrazio- eta lege-oztopo gutxiago izaten dituzte garatu ahal izateko. Hala ere, gero eta zentro gehiago ari dira eta Haur Hezkuntzako etapatik harago urratsak ematen. Proiektu horien gehiengoa legearen bazterrean dago, eta, ondorioz, anonimotasunean ezkututzen dira lege-errepresalien beldurrez (Rodríguez, 2014). Horrez gain, ezohiko egoera legal hori dela-eta, espazio horietara joaten diren haurren gehiengoa, legearen irakurketa zurruna egitekotan, eskolatu gabe dago.

4. Metodologia

Lan honen bidez jakin nahi dugu hezkuntza alternatiboa EAEn zein egoera kualitatibotan dagoen. Horrez gain, azken hamarkadan abian jarri diren askotariko proiektuak deskribatzea eta ezaugarritzea dugu xede. Horrela, gure gizartean gero eta hedatuago dagoen errealitate bat ulertu ahal izango dugu. Halaber, proiektu horien garapenean gakoa denez, horien, eta horietan parte hartzen duten haurren eta familien egungo lege-egoeran sakonduko dugu.

Helburu horiei ikuspegi metodologiko kualitatiboa oinarri hartuta erantzuteko, datuak biltzeko tresna hauek erabili dira:

- Dokumentuen analisia (Simons, 2011). Egun, EAEn, hezkuntza alternatiboko zer proiektu dauden eta proiektu horiek zer garapen izan duten adierazten duten dokumentuak aztertu dira. Zehazki aztertu dira Euskadiko hezkuntza alternatiboari buruzko argitalpenak eta web-orriak, aipamen berezia merezi du lehenago aipatutako iturrietako informazioak: <www.mapa.reevo.org> web-mapa globala eta <<https://ludus.org.es/es/projects>> estatu-mailakoa (EAEko hezkuntza alternatiboko proiektuak biltzen ditu), eta Haziz haziren (Haziz hazi: hezkuntza-, hazkuntza- eta laguntza-sarea) web-orria eta dokumentazioa. Bestalde, EAEko komunikabideen hemerrotekak aztertu dira, 2014.-2019. urteen artekoak.
- Elkarrizketa sakonak (Taylor eta Bodgan, 2008). EAEn alor horretan garrantzitsuak diren pertsonak emateko duten informazioa jasotzea izan dute xede. Zehazki, 4 elkarrizketa egin dira: EAEn hezkuntza alternatiboko proiektuetan parte hartzen duten 3 hezitzailei eta familia bati.

5. Emaitzak


5.1. Hezkuntza alternatiboaren egoerari hurbilpena, EAEn

2019ko irailaren 19ra arte, Hego Euskal Herriko³ lau probintzietatik hirutan lan egiten duten 65 proiektu ageri dira Ludus direktorioan. Horietatik 14 baino ez datoz bat guk aipatutako hezkuntza-proiektuekin. Carneros-ek (2018) darabilen

3. Euskal Herria eratzen duten lurralde historikoek jasaten duten lurralde- eta administrazio-banaketa dela-eta, lan honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan jarriko dugu arreta.

deskribapena oinarri hartuta, 14 proiektu horietatik, 7 Eredu Itxiko Eskola Alternatiboak dira, denak Montessoriren ildokoak, eta beste 7ak Eredu Irekiko Eskola Alternatiboak dira. Hezkuntza alternatiboaren baitakotzat jo ez ditugun proiektuak eskola konbentzionaletan garatzen diren proiektu pedagogikoak dira: Amara Berri (17 eskola), Ikaskuntza Komunitateak (30 eskola), Proiektu bidezko ikaskuntza (1) eta sailkatzeko zailak diren 3 eskola (informaziorik ez). Argitu behar da gure erreferentzia-markoan ez txertatu izanak ez duela esan nahi egiten duten berrikuntza- eta eraldaketa-lana gutxiesten dugunik. Horretaz gain, kontsolidatuak egoteagatik ez ditugu baztertzen, lehenago aipatu dugun moduan desberdindu nahi izan ditugu hezkuntza-proiektu alternatiboak eta pedagogia alternatiboaren kontzeptua bera.

Ludus-ek ematen dituen datuak eta Haziz Hazi sarean bildutako datuak kontuan hartuta, eta EAEko hezkuntza-proiektu alternatibo guztiak sare horretan ez daudela jakinda, aukeraketa sakonago bat egin dugu, egun, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Arabari hezkuntza alternatiboko zenbat proiektu dauden jakiteko. Guztira, 30 zenbatu ditugu: horrek ez du esan nahi martxan proiektu gehiago ez dagoenik; izan ere, batzuek nahiago dute anonimatuari eutsi, jasaten duten lege-ziurgabetasuna dela-eta, lehen ere aipatu dugun moduan.



**2. irudia. Hezkuntza Alternatiboko Proiektuak - EAEko mapa.
Iturria: Geuk egina.**

Lehenengo sailkapen berari jarraiki (Carneros, 2018), aipatutako 30 proiektuen artean, 7 Eredu Itxiko Eskola Alternatiboak dira (6 Montessori eskola eta Waldorf eskola 1), eta beste 23ak Eredu Irekiko Eskola Alternatiboen tipologiakoak dira. 1. koadroan, horietako bakoitzaren ezaugarriak bildu ditugu.

Z	IZENA	XEHETASUNAK	ADINA	WEB-ORRIA
1	Argantzón ikastola (Argantzón)	Euskal Herriko ikastolek eta udalak sustatutako ikastetxea. Hezkuntza-eredu alternatiboetan oinarrituta dago, oso ikasle gutxi dituen ez eta landa-ingurunean dagoenez.	2-12	http://argantzónikastola.eus/
2	Kukunari Eskola Aktiboa (Labraza)	Naturarekin kontaktuan ikasten da hezkuntza-gune horretan, esperientzia zuzenaren eta sormenaren bidez, eta pertsona bakoitzaren erritmoak errespetatuta.	3-6	https://escuelakukunari.wordpress.com/
3	Gutxinaka Gutxinaka Familia Gunea (Gasteiz)	Haurrentzako eta haien familientzako topaketa-, konfiantza- eta segurtasun-gunea. Erreferenteak: Pikler eta Aucouturier. Blek mugimendu-askatasunaren eta segurtasun emozionalaren alde egiten dute.	2-6	http://gutxinaka-gutxinaka.com/
4	Orbelatan Natura Hazkuntza Komunitatea (Barrundia)	Baso Eskola bat da: ikasgelarik gabeko Haur Hezkuntza eredu, aire libreko hezkuntzan oinarritua.	3-6	http://orbelatanura.blogspot.com/
5	«Wabi-Sabi» Errespetuzko Hezkuntzako eta Jolas Libreko Elkartea (Bilbo)	Familiek sortua, beren seme-alabei errespetuan eta jolas librean oinarritutako hezkuntza-espazio bat emateko. Erreferenteak: Pikler, Montessori, Hezkuntza Sortzailea eta Entzute Aktiboa.	0-6	https://espaciowabisabi.wordpress.com
6	Osotu Lanbarri Ikastetxea	Osotuk ikasleen garapen integralaren alde egiten du, haien indargune guztiak indartzeko eta ahuleziak hobetzeko. Prozesuaren parte gisa erratzeko aukera eman behar dio, eta pentsamendu kritikoa eta sormena egunero etengabeak izan behar dira. Egoera emozional osasungarria bultzatuz, non bere emozioak ezagutzen eta kudeatzen ikasiko duen.	6-14	https://www.osotu.org/
7	Barraskilo Hazkuntzarako Espazioa (Laukiz)	Bidelauntzarako eta hazkuntzari laguntzeko hezkuntza-proiektua, bana-banako arretan oinarritua eta haur bakoitzaren beharretara eta erritmoetara egokitua.	0-6	https://www.facebook.com/barraskilo.hazkuntzarako.espazioa
8	Haitzuri Hondar Eskola (Sopela)	Hondartzan, itsasoaren ondoan hazteko hezkuntza-proiektua, Baso Eskolaren eta Pedagogia Berdearen kontzeptuan oinarritua.	3-10	https://www.facebook.com/Haitzuri/
9	Kortine Eskola Librea (Gernika)	Hego Euskal Herriko lehen gune alternatiboa. Esperientzia-erreferenteak: Summerhill eta Paideia. Erreferentzia teorikoak: Freinet, Montessori, Decroly, Rogers, Fromm eta Dewey, besteak beste.	2-16	https://kortine.com/es/
10	Laboragune ikaskuntza-gunea (Leioa)	Gune atsegin bat eskaintzen duen hezkuntza-zentroa, garapen eta ikaskuntza autonomorako egoera egokiak ematen dituena, edozein ikaskuntza-plan araututik harago.	3-16	http://laboragunea.org/
11	Landabaso Eskola Aktiboa (Zalla)	Berriki sortutako eskola aktiboa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak homologatua.	3-12	https://eskolaktiboa.wordpress.com/

12	Mara-Mara Hazkuntza-eta Familia-espazioa (Sopela)	Jolas librean oinarritua. Autonomia sustatzen du eta eritimoak errespetatzen ditu, epaitu gabe. Erreferenteak: Wild, Pikler, Aucouturier, Messori eta Bowlby, besteak beste.	1-6	http://www.mara-mara.com/
13	Txispetak Eskola Librea (Santurtzi)	Haziz Hazi Sareko eskola sortu berria (ez da aurkitu informazio gehiagorik sarean).	--	--
14	Umerri Eskola Akitboa (Berriz)	Haurren beharretara egokitutako eremuetai haien hezkuntza-garapena sustatzea du helburu. Hezkuntza-gune hau familia guztien konpromisoari eta parte-hartzeari esker eratu da.	3-6	http://umerri.blogspot.com.es/
15	Woodlands Nature School (Gaitika)	Baso Eskola da. Proiektuan komunikazio-hizkuntza ingelesa da eta hauek sustatzen ditu: autokonfiantza, gaitasunak, arriskuak hartzea eta mundu naturala preziaztea.	-	https://www.woodlandsnatureschool.com
16	Xixu-Pika Slow Center (Bilbo)	Gune honek gainetik kendu nahi ditu abiadura handiko eritimoak. Horretarako jolas librerako eremua eskaintzen du, presarik eta presiorik gabekoa.	1-6	http://www.xixupika.com
17	Bihotz Inguru Baso Eskola (Donostia)	Aire libreko hezkuntza-proiektua, Baso Eskola. Europan abian dauden ereduak ditu oinarri.	3-6	https://bihoitzinguru.com/
18	Bizilore Eskola Akitboa (Azkoitia)	Eskola akitbo honek eremu osasungarria, errespetuzkoa eta konfiantzazkoa eskaintzen du, pertsona txikienek ikertu, pentsatu, sentitu... ahal izan dezaten, eta garatu ahal izan daitezen.	2-12	https://bizilore.eus/
19	Izadi Eskola Librea (Donostia)	Eskola librea. Hauek ditu erreferentetzat: Wild, Freire, Piaget, Grey, Montessori, L. Perales... Giza Sistemen Ekologia da bere lan-esparrua; hau da, W. Reich-en oinarritutako Serranoren proposamena. 2020-2021 ikasturtean ateak irekiko ditu 3-12 bitarteko umeentzat.	3-12	https://www.facebook.com/eskolazadi/
20	Kabi Etxeak (Donostia)	Gipuzkoan Kabi Etxeak gizarte-alternatibatzat ezagutarazte aldera sortutako erakundea.	0-3	http://kabiexkeak.eus/
21	Orendaingo Baso Eskola (Tolosaidea)	Hezkuntza-proiektu honen oinarria naturarekin eguneroko kontaktuan egotea da. Basoa da eremu nagusia: haurrak dira proiektuaren ardatza eta garrantzia ematen zaio jolas libreari.	3-6	http://www.orendaingobasoeskola.tk
22	Zapaburu Eskola (Donostia)	Pedagogia aktiboetan oinarritutako hezkuntza-proiektua. Erreferenteak: Erikson, Piaget, Wild eta Montessori.	2-6	http://www.zapaburu.org/
23	Zingira Eskola Akitboa (Orio)	Hainbat familiak sustatutako kooperatiba. Jolas libreak, erabaki askeak, belaunaldien arteko trukeak eta pertsona bakoitzaren eritimoekiko errespetuak ardatzen dute hezkuntza-proiektua.	3-16	https://www.zingira.eus/

1. koadroa. EAEko Eredu Irekiko Eskola Alternatiboko proiektuen deskribapena. Iturria: Geuk egina.

Aipatu behar da, lehen ekimena 2007an sortu zela, Argantzón Ikastolan⁴. 2003an sortu bazen ere, geroago abiatu zuten hezkuntza-eredu alternatiboa. XXI. mendearen lehen hamarkadaren amaieran soilik, lau proiektu sortu dira. Hamarkada horretan, hezkuntza-proposamen berrien irekiera esponentziala izan da, eta, azken 3 urteetan, proiektu ugari sortu dira. Ezin izan dugu horietako batzuei buruzko informaziorik bildu, eta, horrez gain, bada lortu ezin izan dugun beste datu bat ere: zer proiektuk ez duten aurrera egin eta egun ez diren existitzen. Hala ere, esanguratsua da azken hamarkadako eta urteetako gorakada ikustea.

**1. taula. Hezkuntza alternatiboko proiektuen gorakada (2007-2019).
Iturria: Geuk egina.**

Urtea	Zenbat proiektu berri	Zenbat proiektu guztira
2007	1	1
2008	1	2
2009	0	2
2010	0	2
2011	2	4
2012	3	7
2013	0	7
2014	1	8
2015	1	9
2016	3	12
2017	3	16
2018	3	18
2019	2	20

Askotariko pertsona eta erakundeak ari dira sustatzen hainbat modutan eremu mota horiek. Batzuetan, familia-taldeak dira aurrea hartu dutenak, elkarrizketatuen hitzak jaso eta gero, baieztatu daiteke familia-taldeen inizatiba eta haien inplikazioa proiektuetan: «(...) yo como aita me preocupé mucho de conocer ese mundo [hezkuntza alternatiboari erreferentzia eginez](...) todos nos aconsejamos, nos ayudamos...yo y otras familias pusimos en marcha un proyecto en O. (...) y ahora participo con mis hijas en el L. (E1)». Beste kasu batzuetan, hezkuntzaren arloko pertsonak erabaki dute beren proiektuak garatzea. Aniztasuna zabala da, eta horren adibide dira Ikastolen Elkarteko Argantzón Ikastola eta Orendaingo baso-eskola: Mondragón Unibertsitatearen babesak daukate bi horiek. Orokorrean esan daiteke herri ekimeneko proiektuak direla.

Batzuk elkartzat eratu dira, beste batzuk kooperatiba eran edo, besterik gabe, enpresa pribatuak dira. Eremu horietatik guztietatik, 5 baino ez daude homologatuta hezkuntza-erakunde ofizialetan (Argantzón Ikastola, Osotu, Umerri Eskola Aktiboa, Bizilore Eskola Aktiboa eta Landabaso Eskola Aktiboa) eta sostengu ekonomiko nagusia familien kuotak dira. Batzuek ekimen paraleloak garatu dituzte finantzatzeko

4. Argantzón Ikastola Trebiñun baldin badago ere (Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa), Haziz Haziko eta Euskal Herriko Ikastolen sareko (Ikastolen Elkartea) kidea da.

moduak izateko. Azkoitiko Bizilore Eskola Aktiboak (Hazitik kooperatiba integraletik sortu zen) aterpetxe bat kudeatzen du, eta Orioko Zingira Eskola Aktiboak (Kooperatiba Sozial Eraldatzailatzat eratu) kanpin bat kudeatzen du.

Beste datu esanguratsu bat proiektu horiek hartzen duten hezkuntza-etapa da. Aipatutako 23 proiektuetatik, 11 Haur Hezkuntzako zikloaz arduratzen dira; 4, Lehen Hezkuntzaren arloaz, eta 4, Derrigorrezko Hezkuntzaren bigarren ziklora artekoaz. Ez daukagu beste hirurei buruzko informaziorik. Gehienek, hasieran, Haur Hezkuntzako etapa baino hartzen ez bazuten ere, pixkanaka, beste adin batzuetara hedatuz joan dira. Hala ere, Haur Hezkuntzako etapan (0-6) eskolatzea derrigorrezkoa ez denez, lege-kontuek errazagoa egiten dute adin-tarte horretarako baino ez diren ekimenak garatzea, lehen adierazi dugun eran.

5.1.1. Haziz doan oihartzun mediatikoa eta sare bat sortzea

Baiezatu dugun eran, Euskal Autonomia Erkidegoa ez da salbuespena izan, eta, azken hamarkadan, hezkuntza alternatiboko ezin konta ahala proiektu sortu dira bertan. Proiektu horien gorakadak agenda mediatikoa ere hartu du. Herrialdeko komunikabide handiei erreparatuta ikusten da azken bi urteetan sektore horren jarraipen mediatikoak gora egin duela. Irratiek, telebistek eta prentsak eman dute proiektu horien berri, erreportajeen eta elkarrizketen bidez edo, besterik gabe, gaiarekin lotutako albisteen berri emanda. Kasu batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoan gehien saltzen den egunkariko orrialdeak hartu ditu gaiak; beste batzuetan, erreportaje espezifikoa egiten dituzten saioen arreta jaso du, hala nola euskal telebista publikoan Xabier Madariaga aurkezle duen saioarena. 2017an, ikusle kopuru handieneko saioa izatea lortu zuen, euskaldunen artean⁵.

Besteak beste, hezkuntza alternatiboko proiektuen gorakadaren ondorioa izan da azken urteetako oihartzun mediatikoa. 2016. urtean Haziz Hazi sarea eratu izana ere horren ondorio da. Hasieran, 9 hezkuntza-proiektu eta hainbat pertsonak sustatu zuten, Madalen Goiriak⁶, besteak beste. Gaur egun, Hego Euskal Herriko 24 proiektu eratzen dute, eta horietako hiruk aholkularitza eta prestakuntza ematen dute. Elkarrekin honako hau du helburu nagusi: «Ezohiko hezkuntzaren alorrean jarduten duten pertsonen eta erakundeen elkarretaratze-gunea izatea» (Haziz Hazi: hezkuntza-, haziera- eta bidelaguntza-sarea, 2017).

5. <<http://www.eitb.eus/es/television/detalle/4840220/datos-audiencia-programa-ur-handitan-etb1-xabier-madariaga/>>.

6. Madalen Goiria, Zuzenbide Zibileko irakaslea EHU. Haurrak etxean hezteari buruzko tesia egin du.

**3. taula. EAEko komunikabideetan edukitako oihartzuna (2014-2019).
Iturria: Geuk egina.**

Albistearen izenburua	Komunikabidea	Data
Jolasa eta natura erdigunean dituen eskola	EITB	2019/09/17
[Teleberrri] Jolasgune 2019 Vitoria-Gasteiz	EITB	2019/05/27
<i>El bosque como aula, en la escuela Bihotz Inguru de Donostia</i>	EITB	2019/05/26
Beste hezkuntza-eredu batzuei buruzko solasaldia, <i>Faktoria</i> irratsaioan	EITB	2018/05/29
Orain da unea hezkuntza-sisteman metodologia berriak txertatzeko	EITB	2018/05/30
<i>Tercer encuentro-fiesta jolasGUNE de la red haziz hazi en Errenteria, Gipuzkoa, por la diversidad de modelos educativos.</i> ETB2ko <i>Teleberrri</i> albistegia	EITB	2018/05/27
Hezkuntza alternatiboak aztergai, gaur gauean, <i>Ur Handitan</i> saioan	EITB	2017/11/07
<i>Ponencias sobre educación alternativa</i>	El Correo	2017/10/06
<i>Centros escolares de Tolosa conocen el proyecto Baso-Eskola</i>	Diario Vasco	2017/08/08
Eredu tradizionaletik kanpo ikasteko era asko dago: batzuk Haziz Hazin daude	Gara	2017/07/01
<i>La enseñanza alternativa reclama su sitio en Euskadi</i>	Cadena Ser	04/06/2017
Haziz Hazi Elkarteak, Hezkuntza-, haziera- eta bidelaguntza-sarea, <i>Ahora</i> saioan	EITB2	01/06/2017
<i>La colegios alternativos avanzan en Euskadi</i>	El Correo	28/05/2017
<i>Aprender jugando</i>	El Correo	28/05/2017
Hezkuntza eta eskola alternatiboa	Argia / Kanaldude TV	06/03/2017
<i>Proyecto Plisti-Plasta</i>	Gara	12/12/2016
<i>Estudiar jugando sin clases ni notas en el barrio de la Herrera, Zalla</i>	Deia	30/05/2016
<i>Un colegio privado con metodología Montessori abrirá en septiembre en Júndiz</i>	El Correo	11/04/2016
<i>«Aprender haciendo», un método educativo que llega a Euskadi</i>	El Diario.es	16/07/2015
Haurra bere hezkuntzaren irakasle	Argia	08/02/2015
Eskola alternatiboak, injerentziarik gabeko hezkuntzaren bila	Hik Hasi	18/02/2014

Sare horrek helburu hauek ditu: erakundeekin hitz egitea, elkarri laguntzea eta lege-laguntza ematea, indarrean diren proiektuak babestea, proiektu berriak sustatzea eta esperientziak partekatzea eta ezagutaraztea. Balioei dagokienez, ikusi dugu kide guztiek 5 alderditan egiten dutela bat (familia-habiak, garbiki asketzat jotako eskolak, *homeschooling* izenekoak, pedagogia aktiboak eta prestakuntza-zentroak):

- Pertsonaren ikuspegi integrala.
- Ikaskuntza ez-zuzendua.
- Garapen- eta ikaskuntza-erritmo desberdinekiko errespetua.
- Bizi-prozesuetan bidelagun izatea.
- Akatsaren balioa.

Gero eta garrantzitsuagoa da sortzen ari den hezkuntza-eragilea, eta proiektuen arteko aliantzak ehuntzeko eta sare moduan eratzeko beharra da horren isla, hala, garatu eta hezkuntza-politiketan esku hartu ahal izateko. 2016. urteaz geroztik, Jolasgune jai-jardunaldia egiten da urtero: proiektu horien elkargunea eta ikusgarritasuna lortzeko gunea izan nahi du Jolasgunek. Bestalde, azpimarratzekoak dira *JolasBide: Aniztasuna, Bertintasuna eta Ikaskuntza Nazioarteko Mintegia* hezkuntza-jardunaldiak; 2018. urteaz geroztik egiten dira Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Jardunaldiak Haziz Hazik antolatzen ditu, Bilboko Hezkuntza Fakultateak (UPV/EHU) lagunduta.

5.2. Lege-egoera

Lanean zehar aipatu dugu zer-nolako lege-oztopoak jasaten dituzten hezkuntza alternatiboaren alde egiten duten proiektuek eta familiek. Hala, garrantzitsua iruditzen zaigu, bai Espainiako Estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, proiektu horiek duten lege-egoeran sakontzea. Xehetasun pedagogikoak gorabehera, hezkuntza-proposamen horien ezarpena eta garapena baldintzatzen ari den funtsezko gakoa da lege-egoera. Nahiz hezkuntza alternatiboko espazioen lege-egoera askotarikoa izan Espainiako Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, ez dira gutxi legediaren mugez eraginez gauzatu ezin izan diren proposamenak. Hau da, horrelako ereduak hautatu nahi dituzten kolektiboen eta familien erabakiak oztopatzen eta baldintzatzen dituen faktorea dira aipatutako legeak.

A priori, espazio horiek ez daukate ez lekurik, ez aitortzarik lege-esparruan (abenduren 9ko 8/2013 Lege Organikoa). Hau da, lege-aitortza lortu nahi duen hezkuntza alternatiboko edozein proiektuk LOMCEk (Espainiako Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa) eta Heziberri Planak⁷ ezarritako esparrua bete behar du, eta lege-esparru hori ohiko hezkuntzarako pentsatuta eta eratuta dago. Egia esan, badira oztopo administratibo eta legalak gainditzea lortu duten proiektuak, eta, beraz, homologazioa ere lortu dute. Horixe da Zallako Landabasoren kasua (Castresana, 2016) edo Umerri eta Bizilore Eskola Aktiboen kasuak.

Oro har, proiektu mota horiek ez dituzte gidatzen LOMCEk eskatzen dituen erako parametroek: hots, aurrezarritako curriculum sekuentzial eta homogeneoak. Curriculum-alderdi horri legalki iskin egitea lortu arren, legearen eskakizun arkitektonikoak eta teknikoak ere oztopo dira. Nekez egokitu daitezke legearen

7. «Heziberri 2020 Hezkuntza Sailak gure hezkuntza-sistema hobetzeko plana da. Planak Europako esparruan hezkuntza eta prestakuntzari buruz 2020rako finkatu diren ildo estrategikoak eta euskal hezkuntzak dituen berariazko erronkak batu nahi ditu, sistemaren bikaintasunerantz pausu sendoak emateko eta bidezkoa, kohesionatua eta aktiboa den gizarte bat lortzeko» <<https://www.euskadi.eus/heziberri/aurkezpena/web01-a3hbhezi/eu/>>.

eskakizun tekniko-legaletara dirulaguntzarik gabeko, ekonomikoki familiek autogestionatutako eta, askotan, ziurgabetasun ekonomikoko egoeran dauden proiektu txikiak (abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa).

Ondorioz, hezkuntza-eredu horien alde egiten duten familiek legez kanpo egiten dute lan derrigorrezko hezkuntza jasotzen duten etapetan. Egoera horrek proiektu hauentzat ondorioak dakartza: «Igual hay padres y madres que no quieren, que no se atreven por la situación en la que están. Igual te denuncian... (E2)». Kasu gehienetan, ez direnez homologatutako proiektuak izaten, familia horien seme-alabak eskolatu gabe daude legearen arabera (Goiria, 2014). Aipatu behar da familia horien aukera ez dela haien seme-alabak etxean heztea, hau da, ez gara *homescholing* izenezkoaz ari; izan ere, kasu horietan, familiek proiektu kolektibo baten esku uzten dute beren seme-alaben hezkuntza-prozesuaren zati bat (haur horiek nolabaiteko periodikotasunez joaten dira proiektu horietara) (Carbonell, 2015; Igelmo eta Laudo, 2017; Carneros, 2018). Legearekiko egoera anomalo horri *homescholing* kolektibo dei dakioke, kontzeptu operatibo bezala, azpimarratuz ume hauek ez direla *homescholer*, hots, etxean ikasten duten umeak.

Esan bezala, ohiko hezkuntza ofiziala hautatu ez duten familien seme-alabak eskolatu gabe daude legearen arabera. Egoera horiek Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema Aldatzeko Lege Organikoak (8/2015, uztailaren 22koa) arautzen ditu. Hezkuntza Konstituzioak emandako funtsezko eskubidea izanik, haurrak ez eskolatzeko oinarritzko eskubide bat urratzea esan nahi du. Haurrak babesteko legearen arabera, familiek eskubide hori alde batera uztea mota desberdineko gizarte-bazterketa egoeren ondorioa da (Goiria, 2014).

Beste hezkuntza-eredu baten alde egiten duten familien errealitatea ordenamendu juridikoak jasotzen duen profilaren aldean oso desberdina da. Haien seme-alabak eskolatu gabe egoteak ez dauka zerikusirik zabarkeriarekin edo gizarte-bazterketarekin; aitzitik, hezkuntzarekin eta politikarekin zerikusia duen hautu bat da eta batzuentzat egora hau ez da arazo bat: «Es que yo creo que no es un problema, para el L. eso nunca ha sido un problema (E3)». Printzipioz, ofiziala ez izan arren, hezkuntza-proiektu bat daukate eta, beraz, ez dira haurren eskubideak urratzen ari. Absentismo-protokoloa martxan jartzerakoan hori baieztatzen dute.

Espainiako Estatuan badago hezteko adinean dauden pertsonak zentro ofizialetan eskolatzera behartzen duen Konstituzio Auzitegiaren epai bat (133/2010 Epai, 2010eko abenduaren 2koa). Epai horrek jurisprudentzia sortu du eta oztopo da homologatu gabeko hezkuntza-eredu alternatiboen alde edo *homescholing*-aren alde egin duten pertsonentzat (Goiria, 2014).

Estatuan gaiari buruzko jurisprudentzia egonik ere, Euskal Autonomia Erkidegoan (gai horretan, eskumenak ditu), EAEko Haurren eta Nerabeen Arretarako eta Babeserako Udal eta Lurralde Mailako Gizarte Zerbitzuetan arrisku-eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna (Balora) eguneratu zen, 152/2017 Dekretuaren bidez. Horrela, bazterketa sozialeko egoerak eta egoera ideologikoak bereizi ziren.

Como muchos ya sabréis, la Comunidad Autónoma Vasca dio un paso adelante con la publicación de este decreto en 2010 y otro pasito más con la actualización del mismo el pasado año 2017.

Desde entonces, muchas familias HS del País Vasco han podido estar un poco más tranquilas sabiendo que los Servicios Sociales tienen un instrumento que les da la posibilidad de archivar el expediente haciendo una clara separación entre el absentismo escolar y el hecho de que la familia proporcione un proyecto educativo individualizado y adaptado a las necesidades del menor (*Asociación para la Libre Educación* elkartearen bloga, 2018ko ekainaren 14a).

Zuzenbideak, zeharka, haurrak ez eskolatzeko aukera ematen du, baldin eta familiek hezkuntza-proiektu indibidual bat aurkezten badute. Legearen zirrikitu horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoan, *homeschooling* indibiduala edo kolektiboa garatzeko aukera dago (Goiria, 2014).

6. Ondorioak

Ikusi ahal izan dugun eran, hezkuntza alternatiboko proiektuen diskurtsoa eta jardunbideak ez dira ez berriak, ez XXI. mendekoak; aitzitik, aurrekariak ditu iragan mendeetan. Aitzindariak izan ziren Leon Tolstoi, Paul Robin eta Ferrer i Guàrdia (Giacomoni, 2008). Ondoren, *Summerhill*, *El Pesta* edo *Paideiaren* moduko esperientziak sortu ziren. Esperientzia horiek XX. mendetik ari dira garatzen; azken urteetan, gora egin dute kuantitatiboki eta legearen bazterretan mugitzen dira oraindik ere.

EAEren kasuan, aipatutako hezkuntza-proiektuen esparruko aurrekaririk ez baldin badago ere, azpimarratzekoa da ez dela legez kanpoko hezkuntza-mugimendu bat sortzen den lehen aldia. Frankismo betean, ikastolak sortu ziren euskaraz ikasi ahal izateko eta berrikuntza pedagogikoa sustatzeko asmoarekin. Gurasoek beren seme-alabak euskarazko ikastetxe klandestinoetan eskolatu zituzten (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015). Mugimendu hori pixkanaka haziz joan zen, eta frankismo berantiarrean legeztatu zituzten ikastolak. Ikastetxe asko kooperatiba bilakatu ziren, eta, 1993an, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Eskola Publikoari Buruzko Legea onartu zenean, ikastola askok publiko bilakatzea erabaki zuten (Mateos, 1999).

Orain, berriro ere, legearen bazterrean edo kanpo jarduten den hezkuntza-errealitate paralelo bat sortu da gure lurraldean: Hezkuntza Mugimendu Alternatiboa. Egia da mugimendu horren erroak globalak direla eta oinarrian dituzten arrazoi pedagogikoak eta testuingurua ikastolak sortu zirenekoen aldean oso desberdinak direla. Baina badira antzekotasunak ere:

- Legez kanpo aritzen dira (homologatuak ez daudenak), behintzat Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Ez dute Hezkuntza Sailaren onarpen instituzionalik.
- Maiz, bai gizarte-ekimenak bai familiak dira hezkuntza-proposamen horiek abian jartzen dituztenak.

- Hainbat hezkuntza-proiektu aliantzak sortzen eta sarean antolatzen hasi dira.

Ziur asko, mugimendu horrek bere bidea egingo du, baina ikastolen moduko aurrekari bat edukitzea funtsezkoa izan daiteke, lege-estatusa aldatzeko. Erakundeen onarpena, hezkuntza-onarpena eta proiektu hauen berezitasuna errespetatuko duen lege-esparru propio bat eduki ahal izatea (xurgatuak izan gabe) ezinbestekoa da hezkuntza-proposamen horiek finkatu eta hedatu ahal izan daitezen eta gizarte-sektore gero eta zabalagoetara irits daitezen. Legeztatzeak homologazioak itunpeko ikastetxe bihurtzeko bidea irekitzen duelako eta estatus horren baitan finantzazio publikoa jaso daitekeelako.

Artikuluan ikusi ahal izan dugu zer-nolako oihartzuna edukitzen ari den hezkuntza-mugimendu hori, bai maila globalean, bai EAEn. Azken urteetan, hazkundera esponenziala izan da: esan dezakegu hezkuntza-olatu berri bati buruz ari garela. Kuantitatiboki datu hori esanguratsua ez bada ere ohiko eskolaren datuekin alderatuta, ziur gaude maila globaleko hezkuntza-mugimendu horrek datozen urteetan izango duen joerak hezkuntza-sisteman arrakalak sor ditzakeela, eta baliteke hezkuntza-agendan esku hartzen jarraitzea, baita gure lurraldean ere.

Aipatu dugu esperientzia horiei arazoak sortzen dizkien beste egoera bat ere: maiz, bazterretan egoten direla. Arazo horiek esperientzien iraunkortasun ekonomikoarekin eta lege-egoerarekin daukate zerikusia. Azken alor horri dagokionez, EAEn dagokionez, ondoriozta daiteke erakundeek onartutako legez kanpoko egoera batean daudela *homescholinga* edo homologatu gabeko hezkuntza alternatiboko proiektuak aukeratzen dituzten familiak. Hala ere, baliabide-gabeziak eta legeak eskatzen dituen baldintza arkitektonikoak eta teknikoak oztopo dira hezkuntza alternatiboko proiektuetarako. Ikusteko dago datozen urteetan eta espazio horien gorakadaren eraginez legeak aldatuko diren edo zentro horietarako lege espezifikoak ezarriko diren. Haziz Hazi sareak «administrazio eta erakundeekin hitz egiteko tresna izatea» (Haziz Hazi: hezkuntza-, haziera- eta bidelaguntza-sarea, 2017) ezartzen du helburu besteak beste.

Arazo juridikoa egon badago, baina hezkuntza-proiektu alternatiboek egungo estatu- eta gizarte-antolaketa ezbaian jartzen dute beren praxiaren bidez, beste zaintza-eredu bat planteatzen ari da, bizitza erdigunean kokatuz (Herrero, Pascual eta Reyes, 2018), kapitalaren aurrean, ez bakarrik haurtzaroaren aurrean. Baliteke gizartearen indargune eta ezaugarri eraldatzaile nagusietako baten aurrean egotea. Baina egia da hori ere muga izan daitekeela egungo mundu-sisteman. Elkarrizketatu batek baieztatu zuen moduan:

(Un proyecto de educación alternativa) sería un proyecto donde a los niños se les viese como personas perfectamente capaces, responsables y en gran medida dependiendo de la edad, autónomas (...) donde si la comunidad necesita algo que los niños también, que todos pudiesen colaborar en ambos sentidos (...) es que sería genial (...). Pero claro el mundo alternativo no está lo suficientemente extendido para está preparada, porque ha aprendido de otra manera. Lo mismo que a mí me ha costado puedo hacer cambio de chip para toda una sociedad (E4).

Zailtasun horiek gorabehera, garrantzitsua iruditzen zaigu mugimendu horien ibilbideari gertutik jarraitzea. Ez dira bistatik galdu behar haien proposamenen bilakaera pedagogikoa, horien berezitasuna, gizarte-mailan eratuz doazen aliantzak, gerta litezkeen erakundeen mugimenduak, eratuz doan identitate propioa...; azken batean, proposamen horien indarguneak eta ahulguneak aztertu behar dira. Hots, ekimen horiek egungo hezkuntza-erronkei nola aurre egiten dieten behatu behar da.

Gure iritziz, proiektu amaitu gabeak dira, etengabe eratuz doazen hezkuntza-proposamen integralak. Beren idiosinkrasiak berak bilakatzen ditu eratzeari eta ikasteari uzten ez dioten proiektu. Baliteke hori izatea, bizi dugun mundu aldakorrean, hezkuntza mota horren indarguneetako bat. Bere burua berrasmatzen eta aztertzen duen ikuspegiak etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezko malgutasuna ematen die.

Baliteke hezkuntza-proiektu hauek proposatzen dituzten eztabaida pedagogikoen mugimendua gaintzea eta, jendartean eskola-erakundea ezbaian dagoen une honetan, mugimenduaren proposamenak ohiko eskoletan era partzialean txertatzea. Izan ere, azken garaian ikusi dugu hezkuntza-berrikuntzarako proposamenak, batzuk hezkuntza alternatibo esaten zaionekoak, ohiko eskoletan txertatzen hasi direla.

Baina ez dezagun ahaztu asko ibilbide luzeko proposamenak izanik ere urtetan ostrazismo pedagogikora baztertuta egon direla: ez gaitezen, beraz, optimistegiak izan. Testuingurua aldekoa izanik ere eta IKTen garapenak gizarteratzea errazten badu ere, ezerk ez du bermatzen berriro ere bazterketa hori gertatuko ez denik. Lortuko al du Hezkuntza Mugimendu Alternatiboak ohiko eskolaren hegemonia (Gramsci, 1970) ezbaian jartzea? Edo, gutxienez, lortuko al du kuantitatiboki hain bazterrekoa ez izatea?

7. Erreferentzia bibliografikoak

- Antonietti, M. (2018): «European preschools in nature. Principles and evidence in international references», *Form@ re-Open Journal per la formazione in rete*, 18(1), 357-367.
- Bauman, Z. (2002): *Modernidad líquida*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko BF.
- , (2007): *Miedo Líquido*, Paidós, Bartzelona.
- Cadena-Chala, M.C. eta Orcasitas-García, J.R. (2016): «Comunidades de aprendizaje en el País Vasco: caracterización y organización escolar», *Educación y educadores*, 19(3), 373-391.
- Carbonell, J. (2015): *Pedagogías del siglo XXI: alternativas para la innovación educativa*, Octaedro, Bartzelona.
- Carneros, S. (2018): *La escuela alternativa: Un modelo de búsqueda de la justicia social y ambiental*, (Doktorego Tesia), Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Madri.
- Carneros, S. eta Murillo, F.J. (2017): «Aportaciones de las escuelas alternativas a la justicia social y ambiental: Autoconcepto, autoestima y respeto», REICE. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 15(3), 129-150.
- Castresana, E. (2016): «Estudiar jugando sin exámenes ni notas en el barrio de la Herrera, Zalla», *Deia*, 2016ko maiatzaren 30a, <<https://www.deia.eus/2016/05/30/sociedad/euskadi/estudiar-jugando-sin-clases-ni-notas>>.

- Centro Europeo para el Desarrollo de la Formación Profesional (CEDEFOP) (2002): *Ágora IX. Modelos alternativos de formación*, Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas, Luxemburgo.
- Contreras, J. (2004): «Una educación diferente», *Cuadernos de Pedagogía*, 341, 12-17.
- , (2010): «Otras escuelas, otra educación, otra forma de pensar en el currículum», in J. Gimeno Sacristán, *Saberes e incertidumbres sobre el currículum*, Morata, Madrid.
- Domènech, J. (2009): *Elogi de l'educació lenta*, Grao, Bartzelona.
- Etxebarria, A. (2016): *Iraunkortasunerako hezkuntza: Baso Eskolak* (Gradu Amaierako Lana), UPV-EHU, Bilbo.
- Feito, R. eta López Ruiz, A. (2008): *Construyendo escuelas democráticas*, Hipatia, Bartzelon.
- Fukuyama, F. (1989): «The end of history?», *The national interest*, (16), 3-18.
- Garagarza, A.; Alonso, I. eta Aguirregoitia, M.(2020): «El auge del movimiento de educación alternativa. Antecedentes, características y reflexiones sobre su futuro», *REDIPE*, 9(1), 24-38.
- García, A. (2017): *Otra educación ya es posible: Introducción a las pedagogías alternativas*, Litera, Valentzia.
- García, T. (2005): «El valor de la democracia en la escuela: Alternativas pedagógicas», *Perspectiva Educacional, Formación de Profesores*, (46), 27-42.
- Giacomoni, V. (2008): «La evolución del concepto de pedagogía libertaria: de la teoría a la práctica», *Germina*, 5, 85-97.
- Goiria, M. (2014): *La opción de educar en casa. Implantación social y encaje del homeschool en el ordenamiento jurídico español* (Doktorego Tesia), UPV-EHU, Bilbo.
- Gramsci, A. (1970): *Antología; selección, traducción y notas de Manuel Sacristán*, Siglo veintiuno editores, Mexiko.
- Greenberg, D. (2003): *Por fin, libres. Educación democrática en Sudbury Valley School*, Marién Fuentes y Javier Herrero, Alacant.
- Guerrero, E. (2013): «Sistema Amara Berri: 40 años de compromiso con la educación», *Infancia: educar de 0 a 6 años*, (139), 26-31.
- Herrero, Y.; Pascual, M. eta Reyes, M.G. (2018): *La vida en el centro. Voces y relatos ecofeministas*, Libros en acción, Madrid.
- Igelmo, J. eta Laudo, X. (2017): «Las teorías de la desescolarización y su continuidad en la pedagogía líquida del siglo XXI», *Educación XX1*, 20(1), 37-56.
- Martín, J. (2004): «Paideia una escuela libertaria», *Revista de Cultura, Asociacionismo y Movimientos Sociales*, 34, 43-47.
- Martín, J. (2004): «Paideia una escuela libertaria», *Revista de Cultura, Asociacionismo y Movimientos Sociales*, 34, 43-47.
- Mateu, J. (2011): «Circunstancias, retos y posibilidades de las escuelas alternativas», *Organización y gestión educativa*, 4, 17-20.
- Neill, A.S. (2009): *Hijos en libertad*, Gedisa, Bartzelona.
- Neill, A.S. eta Torner, F.M. (1963): *Summerhill: un punto de vista radical sobre la educación de los niños*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko BF.
- Nixon, C. (2015): *Remembering why Forest Schools are Important: Nurturing Environmental Consciousness in the Early Years* (Doktorego Tesia), McGill University Libraries.
- Nuin, J. (2013): «Visitar el león dormido: una experiencia de activación», *Cuadernos de Pedagogía*, 434, 53-58.
- La educación prohibida (2009-2012): *La Educación Prohibida*, < <http://educacionprohibida.com>> (Kontsulta: 2019-09-19).

- Larrañeta, A. (2015, 5 de noviembre): «Boom de la educación con pedagogías alternativas», *20 Minutos*, <<https://www.20minutos.es/noticia/2450363/0/educacion/pedagogias>> (Kontsulta: 2018-05-27).
- Ley de la Escuela Pública Vasca, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (1/1993 otsailaren 19koa).
- Ley Orgánica, para la mejora de la calidad educativa, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (8/2013 abenduaren 9koa).
- Ley Orgánica de Modificación del Sistema de Protección a la Infancia y a la Adolescencia, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (8/2015 uztailaren 22koa).
- Ludus, Otra educación ya es posible (2019): *Ludus, Otra educación ya es posible*, <<http://ludus.org.es/es>>.
- Plan Heziberri 2020, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (2016 urtarrilaren 5koa).
- Pericacho, F.J. (2014): «Educación Social y modelos escolares alternativos: aproximación teórica, retos y posibilidades socio-educativas», *RES, Revista de Educación Social*, 18.
- Ramos, S., eta Pericacho, F.J. (2013): «Sobre la renovación pedagógica y su enseñanza universitaria. Una propuesta metodológica», *Cabás*, 10, 143-168.
- Raywid, M.A. (1994): «Alternative Schools: The state of the art», *Educational Leadership*, 52(1), 26-31.
- REEVO - Mapeo Colectivo de la Educación Alternativa (2019): *REEVO - Mapeo Colectivo de la Educación Alternativa*, <<http://map.reevo.org/>> (Kontsulta: 2019-09-19).
- Rodríguez, M. (2014): *Dejadnos aprender. Reflexiones desde la pedagogía libertaria*, Volapük Ediciones, Guadalajara.
- Salmerón, S. (2010): «Nuevas miradas educativas. Aportaciones de la educación social a las escuelas libres de Cataluña, Una alternativa profesional y pedagógica», *VIII Jornadas de Redes de Investigación en Docencia Universitaria: nuevas titulaciones y cambio universitario*, Alacanteko Unibertsitatea.
- Simons, H. (2011): *El estudio de caso: Teoría y práctica*, Morata, Madrid.
- Taylor, S.J. eta Bogdan, R. (2008): «La entrevista en profundidad», *Métodos cuantitativos aplicados*, 2, 194.
- Tonucci, F. (1996): *La ciudad de los niños*, Grao, Bartzelona.
- , (2014): *La infancia es un sensible indicador ambiental de nuestras ciudades*, Bizkaia Maitea, 35.
- Wernicke, C.G. (1994): «Educación holística y pedagogía Montessori», *Educación Hoy*, (10), 1-11.
- Wild, R. (2012): *Educar para ser: vivencias de una escuela activa*, Herder Editorial, Bartzelona.
- , (2013): «Vivir y aprender de manera coherente, en un proceso de desarrollo sostenible», *Cuadernos de Pedagogía*, 434, 48-52.
- XELL - Xarxa d'Educació Lliure. (2018): *Educació Lliure*. Barcelona, <<https://educaciolliure.org/es/nos-presentamos/quienes-somos/>> (Kontsulta: 2019-11-05).
- Zabaleta, I.; Garmendia, J. eta Murua, H. (2015): «Movimiento popular y escuela en el franquismo: las ikastolas en Gipuzkoa», *Historia de la educación*, 34, 305-336.

